

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak negozio eredu batek ondo funtzionatzeko behar diren aktibo garrantzitsuenak dira. Beraz, negozio guztiek behar dituzte funtsezko baliabide batzuk balio proposamena sortu eta eskaintzeko, merkatuetara iristeko, beste merkatu batekin harremanak ezartzeko eta diru-sarrerak sortzeko. Bakoitzak baliabide desberdinak erabiltzen ditu, negozio motaren arabera.

Hortaz, gure negozioak ere funtsezko baliabide batzuk behar ditu aparteko katea izateko, eta horretarako elementu garrantzitsu batzuk beharko ditugu.



Hasteko, gure katea kirolari buruz izango denez, elementu garrantzitsuenetako bat espazio fisikoa izango da, hau da, hainbat kirol egiteko aukera egongo da edo proba batzuk jolas moduan egiteko. Horretarako, espazio handi eta zabal bat izango dugu proba horiek askatasun osoz egiteko. Egia esan, kirol gehienak kanpoan izango dira, eta orduan, ez da hainbestetan erabiliko espazio hori. Baina gure ustez, horrelako espazio bat izatea garrantzitsua izango da gure katearentzat.

Bestetik, gure kateetako aurkezleak kirolari buruz jakitea ezinbestekoa izango da. Aurkezleak ez badaki kirol bati buruz, ez du jakingo horri buruz hitz egiten edo esaten ari dena guztiz ondo dagoen jakiten. Horregatik, aurkezlea kirolari buruz aditua izan behar du, beraz, gaiari buruz dakien bat aurkitzen saiatuko gara. Horrela, aurkezlea zuzen hitz egiten dagoen ziurtatuko dugu.

Bukatzeko, finantza bat egotea funtsezkoa izango da, gure langileei kontratatze eta ordaintzeko. Finantzarik gabe zaila izango litzateke langileak lortzea. Horregatik, finantza edukitzea eta ematea garrantzitsua da gure negozioan eta gure ustez, enpresa guztietan.

